

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2009/326/EE ERABAKIA, 2009ko martxoaren 11koa, Europar Batasuneko Elkartasun Funtsaren mobilizazioari buruzkoa, Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2006ko maiatzaren 17an aurrekontu-diziplinari eta finantzakudeaketa onari buruz izenpetutako erakunde-arteak Hitzarmenaren 26. puntuarekin bat etorritz.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «DECISIÓN DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 11 de marzo de 2009, relativa a la movilización del Fondo de Solidaridad de la Unión Europea, de conformidad con el punto 26 del Acuerdo interinstitucional, de 17 de mayo de 2006, entre el Parlamento Europeo, el Consejo y la Comisión sobre disciplina presupuestaria y buena gestión financiera» (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 98/38 de 17/4/2009)

2009/326/EE Erabakia (EBren Egunkari Ofiziala, L 98/38 2009/4/17koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

II

(Derrigorrez argitaratu beharreko EE/Euratom Tratatuak aplikatuta onartutako egintzak)

ERABAKIAK

EUROPAKO PARLAMENTUA ETA KONTSEILUA

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN ERABAKIA

2009ko martxoaren 11koa,

Europar Batasuneko Elkartasun Funtsaren mobilizazioari buruzkoa, Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2006ko maiatzaren 17an aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa onari buruz izenpetutako erakunde-arteak Hitzarmenaren 26. puntuarekin bat etorriz

(2009/326/EE)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2006ko maiatzaren 17an izenpetutako erakunde-arteak Hitzarmena, aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa onari buruzkoa [1], aztertu dute, bereziki Hitzarmenaren 26. puntua,

Europar Batasuneko Elkartasun Funtsa eratu zuen Kontseiluaren 2012/2002/EE Erregelamendua, 2002ko azaroaren 11koa, aztertu dute, bereziki Erregelamenduko 4. artikulua 3. paragrafoa,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

- (1) Europar Batasuneko Europar Batasuneko Elkartasun Funtsa ("Funtsa") sortu zuen hondamendiak jasandako eskualdeetako biztanleei elkartasuna azaltzeko.
- (2) 2006ko maiatzaren 17ko Hitzarmenak Funtsaren mobilizazioa baimentzen du, eta mobilizazio horren gehienezko muga urteko 1.000 milioi eurokoa da.
- (3) Funtsaren mobilizazioa arautzen duten xedapenak biltzen ditu 2012/2002/EE Erregelamendua.
- (4) Errumaniak Funtsa mobilizatzeko eskaera bat egin du, uholdeek eragindako hondamendi bat dela-eta. Batzordeak irizten du eskaera horrek 2012/2002/EE Erregelamendua 2. artikuluan xedatutako baldintzak betetzen dituela eta, ondorioz, dagozkion kredituak baimentzea proposatzen du.

ERABAKI DUTE:

1. artikulua

2009ko ekitaldirako Europar Batasunaren aurrekontu orokorrean, Europar Batasuneko Elkartasun Funtsetik 11.785.377 euro mobilizatuko dira konpromiso- eta ordainketa-kredituetarako.

2. artikulua

Erabaki hau Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratuko da.

2009/326/EE Erabakia (EBren Egunkari Ofiziala, L 98/38 2009/4/17koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Estrasburgon emana, 2009ko martxoaren 11n.

Europako Parlamentuaren izenean

Presidentea

H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean

Presidentea

A. VONDRA

[1] C 139 EO, 2006.6.14koa, 1. or

[2] L 311 EO, 2002.11.14koa, 3. or.